

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

AMURRIOKO UDALA

Behin betiko onartzea kontziliazio neurri gisa kontrataziorako laguntza ekonomikoen udal-programa arautzen duen ordenantza

Amaitu da Udalbatzak Osoak kontziliazio neurri gisa kontrataziorako laguntza ekonomikoen udal-programa arautzen duen Ordenantzaren hasierako onespenerari buruz (2020/98/S999 espediente) bi mila eta hogeiko ekainaren 25ean hartutako erabakiaren aurka erreklamazioak aurkezteko epea (erabakia 2020ko uztailaren 8ko ALHAOn argitaratu zen, 76. zenbakian), eta ez da inolako erreklamaziorik aurkeztu. Hortaz, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 49. artikuluan xedatutakori jarraikiz, erabakia behin betikotzat jotzen da, eta hori jendaurrean jartzen da Lege beraren 70-2 artikuluan aurreikusitako ondorioetarako. Ordenantza hau indarrean jarriko da testu osoa ALHAOn argitaratu eta Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legearen 65.2 artikuluan adierazitako hamabost eguneko epea igaro ondoren, eta indarrean jarraituko du baldin eta gerora aldatu edo indargetzea erabakitzen ez bada.

“KONTZILIAZIO NEURRI GISA KONTRATAZIORAKO LAGUNTZA EKONOMIKOEN UDAL-PROGRAMA ARAUTZEN DUEN ORDENANTZA

Hitzaurrea

Amurrioko Udalak interesgarritzat jo du udalerrian etxeko langileen kontratazioa bultzatzeko dirulaguntzak ematea, norberaren bizitza, lana eta familia bateragarri egiteko neurri gisa. 2020ko martxoaren 14an alarma-egoera deklaratzearen ondorioz, COVID-19ak zailagoa egin du kontziliazioa. Horregatik, interesgarritzat jo da laguntza bat onartzea, adingabeak, adinekoak eta/edo mendekoak zaintzen dituzten langileak kontratatzeak familietan dituen ondorio ekonomikoak arintzeko. Laguntza horiek emateko, Amurrioko Udalak ordenantza hau onartu behar du, aurrekontua betetzeko oinarrien esparruan.

1. Xedea eta aplikazio-eremua

Oinarri hauen xedea da udalerrian etxeko langileen kontratazioarekin laguntzeko dirulaguntzak emateko baldintzak arautzea; izan ere, COVID-19aren ondorioz 2020ko martxoaren 14an hasi zen alarma-egoera dela eta, zailagoa da bizitza pertsonala, lana eta familia bateratzea. Itzuli beharrik gabeko dirulaguntzak dira laguntza ekonomiko horiek.

2. Onuradunek bete behar dituzten baldintzak

Baldintza hauek betetzen dituzten pertsona fisikoak izan daitezke oinarri hauetan jasotako laguntzen onuradun:

a) Etxeko langileei lan-kontratu bat egitea, Gizarte Segurantzako erregimen orokorreko etxeko langileen erregimen berezian alta emanda, alarma-egoera ezarri zen egunetik aurrera, hau da, 2020ko martxoaren 14tik aurrera, edo dagoeneko pertsona bat kontratatuta bazuten, langile horrek hilean ordu gehiago egin behar izan baditu.

b) Amurrion erroldatuta egotea duela urtebetetik gutxienez.

c) Haien ardurapean 12 urte baino gazteagoak eta/edo mendekoak diren pertsonak edo 75 urte baino zaharragoak eta/edo mendekoak diren pertsonak izatea.

d) Zerga izaerako betekizunak eskatzen dizkieten herri administrazioen aurrean dituzten betebeharrak eguneratuta izatea, baita Gizarte Segurantzarekin dituzten betebeharrak ere.

3. Diruz lagundu ahal diren gastuak

Diruz lagundu ahalko dira etxeko langile bat edo batzuk kontratatzeke gastuak, edo hilean ordu gehiago lan egiteagatik eragindako gastuen gehikuntza, bai eta enplegatailearen kargurako Gizarte Segurantzaren ere, 2020ko martxoaren 14tik 2020ko irailaren 15era bitarteko aldirian.

4. Dirulaguntzaren zenbatekoa

4.1. Dirulaguntzaren gehieneko zenbatekoa familia-unitatearen urteko diru-sarreraren arabera kalkulatu da, eta etxebizitza berean erroldatuta dauden beste pertsona batzuen diru-sarrerak gehituko zaizkie (baldin badaude):

ETXEBIZITZAN ERROLDATUTAKO PERTSONEN URTEKO DIRU-SARREREN BATURA	JASO BEHARREKO ZENBATEKOA
Gehienez 40.000 euro	justifikatutako gastuen % 50, eta gehienez 3.000,00 euro
40.000 eta 60.000 euro artean	justifikatutako gastuen % 30, eta gehienez 2.000,00 euro
60.000 euro baino gehiago	justifikatutako gastuen % 20, eta gehienez 1.000,00 euro

Epe barruan aurkeztutako eskabideak ikusita, diruz lagundu beharreko gehieneko zenbatekoak horretarako dagoen aurrekontu-esleipena gainditzen badu, lehenik eta behin errenta-maila txikiagoa duten eskatzaileei emango zaie arreta. Lehengo esleipen horren ondoren aurrekontu-partidarik badago, bigarren errenta-mailako eskatzaileei emango zaie arreta, eta, azkenik, errenta-maila handieneko eskatzaileei.

4.2 Familia unitatearen diru-sarrerak kalkulatzeko hauxe izango da kontuan: zerga oinarria 2019ko ekitaldiko Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko azaroaren 27ko 33/2013 Foru Arauan aipatutako konpentsazio-pentsioak eta jakiengatik urtero jasotakoak.

5. Onuradunen betebeharrak

Laguntza hauen onuradunek honako betebeharrak izango dituzte:

1. Udalaren egiaztapen-jarduketak eta Kontu-hartzaitza Nagusiari dagozkion finantza-kontrolako jarduketak onartzea, bai eta Herri Kontuen Euskal Epaitegiaren arauetan aurreikusitakoak ere.

2. Udalari jakinaraztea udal-dirulaguntza honetan aurkeztutako gastu berberetarako dirulaguntzak edo laguntzak jaso dituela.

3. Udalari jakinaraztea laguntza emateko kontuan hartu den edozein baldintzaren aldaketa, objektiboa zein subjektiboa izan.

4. Sustapen Ekonomikoko Sailari ematea laguntza-eskaera ulertu eta ebaluatzeko beharrezkotzat jotzen den informazio eta dokumentazio osagarria.

5. Dirulaguntza emateko ebazpen-proposamena eman aurretik, zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean dituela egiaztatzea.

6. Aurrekontu-eskuragarritasuna

Deialdi honetan aurreikusitako dirulaguntzak "Etxeko langileak kontratatzen laguntzeko laguntzak" izeneko 20.1.20.1. 230002.480 partidaren kargura finantzatu da, 50.000 euroko zenbatekoan.

7. Bateriaezintasuna beste laguntza eta dirulaguntza batzuekin

Programa honetan aurreikusten diren laguntzak ezingo zaizkio gehitu gastu beretarako bestelako laguntzei.

8. Interesdunek honako dokumentazio hau aurkeztu beharko dute

a) Eskaera-orria eta zinpeko adierazpena (1. eranskina).

b) Eskatzailearen eta ezkontidearen edo ohiko bikotekidearen nortasun-agiri nazionalaren fotokopia, atzerritarraren nortasun-zenbakiarena edo indarrean dagoen pasaportearena. Eskatzaileak komunitate barruko atzerritarrak badira, Europar Batasuneko Herritarren Erregistroko ziurtagiria aurkeztu beharko dute.

c) Ezkontza baliogabetu bada edo banantze judiziala edo dibortzioa gertatuz gero, ebazpen judizialaren fotokopia, dirulaguntzaren xede diren seme-alaben zaintza eta babespena esleitzen duena.

d) Etxeko langilearekin egindako lan-kontratuaren kopia, bai eta ordaindutako nominen eta Gizarte Segurantzari egindako ordainketen banku-ziurtagiriak ere. Nomina eskudirutan ordaintzen bada, sinatutako nominaren edo nominen kopia(k) aurkeztuko da.

e) Gizarte Segurantzarekiko ordainketak egunean izatearen ziurtagiria.

f) Foru Ogasunarekiko ordainketak egunean izatearen ziurtagiria.

h) Hirugarrenen alta-inprimakia, finantza-erakundeak behar bezala zigitatu eta sinatua eta arauz adostuta. II. eranskina

9. Eskaeren aurkezpena

Eskaerak eta nahitaezko agiriak Amurrioko udal-erregistro orokorrean (Juan Urrutia plaza, z./g.) aurkeztu beharko dira. Aplikagarri izango da Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak 16.4 artikuluan xedatutakoa. Interesdunek eskaera aurkezteak berekin dakar oinarri hauen edukia onartzea. Eskaerak aurkezteko epea 2020ko ekitaldirako deialdia ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunean hasiko da, eta aurtengo urriaren 31n amaituko da.

10. Akatsak zuzentzea

Dirulaguntzaren eskaerak deialdi honetan eskatutako baldintzak bete ezean, edo eskatutako dokumentazioa eransten ez bada, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak bere 68. artikuluan aurreikusitakoarekin bat etorritik, interesdunei eskatuko zaie 10 egun baliioduneko epean akatsak zuzentzeko edo derrigorrezko dokumentuak eranstea. Era berean, jakinaraziko zaie eskatutakoa egin ezean, eskearari uko egin diotela ulertuko dela, 21. artikuluan aurreikusitako moduan ebazpena eman ostean.

11. Emateko prozedura

Sustapen Ekonomikoko Sailari dagokio oinarri hauetan xedatutako laguntzak kudeatzea, eta aurkeztutako eskaerak aztertu eta ebaluatuko ditu. Tokiko Gobernu Batzordeak erabakiko du laguntzak ematea edo ukatzea, Sustapen Ekonomikoko teknikariak proposamena egin ondoren, eta aurrekontu-esleipenari buruzko txostena egin ondoren.

12. Laguntzak ordaintzea

Laguntzak ordainketa bakar baten bidez ordainduko dira.

13. Dirulaguntzak aldatzea

Dirulaguntzak emateko kontuan hartu diren baldintzak aldatuz gero, hura emateko ebazpenak aldatu ahalko dira. Edonola ere, aldaketa horrek oinarriotan ezarritako baldintzak bete beharko ditu beti.

14. Kontrola, ebaluazioa eta ikuskapena

Amurrioko Udalak egoki deritzen kontrol- eta ebaluazio-ekintzak egin ahal izango ditu Sustapen Ekonomikoko Sailaren bidez, laguntzak aurreikusitako xedeetarako erabiltzen direla egiaztatzeko, eta onuradunek eskatzen zaien informazio osagarri oro eman beharko dute.

15. Ordezko araubidea

Oinarri hauetan aurreikusi ez diren kasuetan, honako hauek aplikatuko dira: Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra eta hori garatzen duen Araudia, eta Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legea.

16. Indarrean jartzea

Ordenantza hau ALHAOn argitaratu ondoren jarriko da indarrean, aplikatu ahal zaion legedian xedatutakoarekin bat etorritz.

Amurrio, 2020ko abuztuaren 28a

Alkatea

MIREN JOSUNE IRABIEN MARIGORTA

I. ERANSKINA: LAGUNTZA-ESKAERA ETA ZINPEKO ADIERAZPENA

.....jaunak/andreak (NAN edo AIZ zenbakia.....;
helbidea:; harremanetarako telefono-zenbakia:
.....; eta posta-elektronikoa:

HONAKO HAU ADIERAZTEN DU

• Ezagutu eta onartzen ditu norberaren bizitza, lana eta familia bateragarri egiteko neurri gisa etxeko langileak kontratatzeke dirulaguntzen udalprogramaren barruan aurkezten den deialdiaren oinarriak.

• Betetzen ditu oinarrietan onuradun izateko ezarritako betekizunak.

• Ez dago sartuta dirulaguntza publikoak itzultzeko prozeduretan edo zehapen-prozeduretan.

• Ez du jaso bestelako erakunde publiko edo pribaturen laguntzarik laguntza-deialdi honetara aurkeztutako gastu berberak finantzatzeko.

• Halaber, konpromisoa hartzen du Amurrioko Udalarari deialdi honen bidez diruz lagundutako gastu berberengatik beste erakunde publiko edo pribatu batzuetatik jaso ditzakeen dirulaguntzen berri emateko.

ETA HONAKO HAU ESKATZEN DU

ALHAOn argitaratutako oinarriekin bat etorritz, honako honetarako laguntza:

Eta dagokion lekuan ager dadin, sinatzen du

Amurrio, 2020koaren(a).

ESKAERA BETETZEKO ARGIBIDEAK

A LETRA: Pertsona fisiko edo juridikoa guztiz ezagutarazi beharko du, jarraian aipatzen diren datuen arabera.

1.- Pertsona juridikoen kasuan, identifikazio fiskalerako kodea azaldu beharko da eta pertsona fisikoaren kasuan, nortasun agiria edo pertsona fisikoaren identifikazio fiskalerako zenbakia. Atzerriko erakundearen kasuan, errolda zenbakia azalduko da eta, pertsona fisikoei dagokienez, identifikazioa zenbaki pertsonala.

2.- Pertsona fisikoaren kasuan, bi abizen eta izena idatziko dira eta, pertsona juridikoen edo erakundearen kasuan orokorrean, sozietatearen izena.

B LETRA: Erakunde edo pertsona fisikoaren helbidea zuzen eta osorik adierazi bete beharko da.

C LETRA: Bankuak bete beharrekoa.

IBANa karaktere alfanumeriko segida bat da, banku-kontu bat nazioarte mailan identifikatzeko balio duena. 24 karakterez osatzen da:

- Lehenengo 2 karaktere alfabetikoen lurraldearen adierazten dituzte.
- Hurrengo 2 karaktereek IBANaren kontrol digituak dira.
- Hurrengo 20 karaktereek, bezero-kontuaren kodea (BKK) adierazten dute:
 - 4 karaktere: banlku-kodea
 - 4 karaktere: agentzia-kodea
 - 2 karaktere: kontuaren kontrol-digitua
 - 10 karaktere: kontu-zenbakia

D LETRA: Bankuaren sinadura eta zigilua banku-datuak zihurtatuz.

E LETRA: Administrazioarekin kontratua egin duen hirugarrenaren sinadura eta zigilua, agirian aipatzen diren datuak zuzenak direla zihurtatuz.

INSTRUCCIONES DE CUMPLIMENTACIÓN

LETRA A: Deberá identificar plenamente a la persona física o jurídica según los datos que se indican a continuación.

1.- Se indicará el código de identificación en personas o en entidades en general y documento nacional de identidad o número de identificación fiscal en personas físicas. En el caso de entidades extranjeras se indicará el número de registro, y para personas físicas el número personal de identificación.

2.- Se indicarán en el caso de personas físicas dos apellidos y nombre y, en el caso de personas jurídicas o entidades en general, el nombre o razón social.

LETRA B: Deberá identificar correctamente el domicilio social de la entidad o de la persona física y cumplimentarse en su totalidad.

LETRA C: Deberá cumplimentarse por la entidad bancaria.

El IBAN es una serie de caracteres alfanuméricos que identifican una cuenta bancaria a nivel internacional.

Está compuesto de 24 caracteres:

- Los 2 primeros caracteres alfabéticos, identifican el país.
- Los 2 caracteres siguientes, corresponden a los dígitos de control del IBAN.
- Los 20 siguientes caracteres corresponden al código cuenta cliente (CCC), que está compuesto por:
 - 4 caracteres: código del banco
 - 4 caracteres: código de la agencia
 - 2 caracteres: dígito de control de la cuenta
 - 10 caracteres: número de cuenta

LETRA D: Firma y sello de la Entidad Bancaria certificando los datos bancarios.

LETRA E: Firma y sello del tercero contratante con la administración, certificando la corrección de los datos que figuran en el documento.